

Haurdunaldiaren eta umeen jatorriaren gaineko siniskerak

Seme-alaben jaiotzak interes berezia sortzen eban ingurukoakan. Horixe erakusten deuskue behinik behin gure arteragokoakandik batu doguzan siniskerek.

Sinismen horreetako batzuek haurdunaldiagaz eben zerikusia. Kasu batzuetan, umedun egoan emakumearen desioak edo gurariak ez asetzeak eragin zuzena eukan haurraren. Amak desiotako horren itxurea eukan orainenak urtetan eutsan azalean umeari. Halan bada, familiakoek ahalegin guztiak egiten ebezan amari gustua emoteko.

Bestalde, umearen sexua zein zan jakitea oso garrantzitsua izaten zan lehen; eta horretarako, hainbat bide egozan. Emakumearen tripeak punta zorrotza euki ezker, mutila jaioko zala esaten zan herririk gehienetan; baita zila kanpoan euki ezker be. Umedun egoanaren aurpegian urtetan eben orbanek be balio izaten eben umearen sexua asmetako: emakumeari aurpegia ilundu edo orbanak agertzen bajakozan, mutila jaioko zala esaten zan; arpegia garbi euki ezker, oster, neskatoa.

Haurren sexua iragarteko, iretargiari aditzen eutsien beste hainbatek: ilgoran umedun geratzen zan andreak mutila ekarriko ebala pentsetan zan, eta ilbeheran lotu ezker, neskatoa.

Umeen jatorriari buruz be askotariko bertsinoak entzun izan doguz umetan aitaamen ahotik. Jaiobarria zikoinak ekartzen ebala esatea zan siniskerarik hedatuena. Normalean, mokotik zintzilik ekartzen eban umea, trapu edo painelu baten batuta, edota kaxa edo otzaratxu baten sartuta.

Siniskera hori baino lehenagokoa da umeak partereak ekartzen ebazala inoena. XX. mendeko 50eko hamarkadara arte, umedun egoanaren etxean jaioten ziran umeak, eta inguruko emakumeen laguntzinoa eukiten eban. Parterea sano garrantzitsua izaten zan ume-egiteetan; beti jotzen zan beragana, eta arazoren bat egoanean baino ez jakon eskatzen laguntzea medikuari. Halanda ze, ulertzekoa da parterea ume-ekarletzat eukitea.

Herritik herrira desbardintasunak egoten ziran arren, gauza bat eukien siniskerok komunean: umeek ugalketearen gainean eben jakin-gurea besteratzea. Oso normala zan era horretako gauzak asmetea; izan be, sasoi baten, umeek ez eben sexualidadearen gaineko informaziorik jasoten. Guraso eta haurren artean ez egoan gai horreen gainean berba egiteko besteko konfiantzea. Gaur egun, askoz be informazino gehiago jasoten dabe, bai etxean, baita eskolan be; eta komunikabideek be eragin handia izan dabe horretan.

Ziortza Artabe Etxebarria – Herri Ondarea Arloa – Labayru Fundazioa

(*Euskal Herriko Atlas Etnografikoa* obraren *Ohikuneak Jaiotzatik Ezkontzara* liburukitik egokitua)